

Maddi Urteaga Riaño

Emaila • 3 saria

Kaixo!

La Salle-San José ikastetxeko ikaslea naiz; Maddi dut izena eta LH 5.mailan nago. Isila eta lotsatia izan arren, oso neska alaia eta irrifartsua naiz.

Zeharkako txirula jotzen dut eta padelen jolastea oso gustukoa dut; halere, gehien gustatzen zaidana nire lagunekin jolasean aritzea da.

Saria irabazten dudan bigarren urtea da eta aurten ere, ilusio handia eman dit; istorioa zuen gustukoa izatea espero dut, ea zer deritzozuen. Saria, egoera jasangaitzan dauden siriar hurrei eskeintzen diet baita nire familiari ere.



ESPERANTZARA

Udaberria atejoka dabil eta dagoeneko bere ondorioak sufritzen hasi naiz. Eztarria lehor-lehorra daukat, sudurreko azkura handia, arnasa hartzeko nahiko zailtasun eta begiak, berriz, orduak negarrez eman izan banitu bezala, gorri-gorriak. Negar egiteari aspaldi utzi nion, malkoak lehortu zaizkit, bihotza uste baino gehiago gogortu eta begirada guztiz goibel daukat. "Haur hauek begirada galdua dute" entzuten zaie kanpalekura etorri berri diren laguntzaile inozoei. Zer demontre jakingo dute? Gehien gustatzen zaidan laguntzailea Bego da. Emakume leiala. Egia estaltzen ez duen horietakoa da Bego. Ama, hesiaz bestalde larri zauritu zutenean, niregana etorri eta benetan gertatutakoa adierazi zidan bakarra bera izan zen.

Kanpalekuko bizimodua ez da samurra, batez ere bakarrik gaudenontzat. Etxea eta familia galdu ditugu eta lagunak egitea ez da lan erreza. Kamioi berdeak iristen direnean gertatzen dira liskar handienak. Kamioi berde horiek herrialde desberdinetatik datoz eta egun batzuetarako elikagaiak, arropa eta oinetakoak ekartzen dituzte. Baita herrialde horretan egindako bilketa bereziren bat ere. Kamioi berde bati esker ezagutu nuen Bego.

Ilun zegoen, hotz handia egiten zuen eta denda barruan nongoen. Zopa antzeko ur zikina berotzen ari ginela garrasiak entzun genituen: "kamioi berdea, kamioi berdea!!" Hura aztoramendua! Bonbetatik ihesika bezala irten ginen dendatik eta konturatu orduko kamioi berde handiaren parean geunden kutxetatik tiraka eta tiroka. Nire erretinan betiko gordeta ditut jasandako gertakari beldurgarriak, bala hotsak, bakarrik, nire buruan zeudela pentsatzen nuen. Baina ez, kamioi berdetako kutxek jendea eroa bihurtzen dute eta egun hartakoa zoramena izan zen.

Inork espero ez zuen bilketarekin topatu ginen. "Eskolarako" beltzez eta letra larriz idatzita zegoen kutxa ireki zutenean, Begoren herrialdean opariak banatzen dituen ikazkin tripa handia kamioi barruan ezkutatuta zetorrela ematen zuen. Denetatik atera zuten: kolore

desberdinetako arkatz margo ederrak, errotulagailu fosforeszente berde, hori, laranja eta urdinak, ezabagomak, axotak, tamaina guztietako koadernoak, txorroskiloak, aniladun karpetak, gomadunak ere, baloiak, soka-saltoak eta ipuinak!!

Infernu honetan magiarik gabe, nola bizi ba? Printze Txikia eskuartean nuela Samir eta bere anaia inguratu ninduten, bultzaka hasi ziren baina ondo helduta neukan nire altxorra. Askatzen ez nuela eta, Samirrek atzeko poltsikotik bere pistola atera eta ez zuen zalantzarik izan BUM, BUM!! Ezkerreko sorbaldan tirokatu eta lurrera erori nintzen. Sustoa geratu zen dena, hori bai, susto handian!.

Egun hartako oparia Bego izan zen, bera da geroztik pilatutako sufrimendua kentzen saiatzen dena eta ahal dudan denbora gehiena berarekin pasatzen dut. Eskola orduak bukatzen direnean ospitalera joaten naiz. Jaioberriekin laguntzen diot. Iluntzean bere herrialdeko istorioak entzutea asko gustatzen zait eta pixkanaka bere hizkuntza ikasten ari naiz jartzen dizkidaten abestiekin. Asko ikasiko dudala agindu diot eta handitan medikua izango naiz bera bezala eta bere herrialdea ezagutzera joango naiz. Ai ene! Nire burua esperantzara kondenatua.